

I.—Aita Intzak Napoñan bildutako itz-beñi batzuek dakarzki, Iztegi beñari ezarñi bear zaizkionak. Aita onek berak ekañi dizkigu Prantzizko Iribañen jaunak, Anizko apaizak, bildu dituen beste itz-beñi batzuek. Len ere jaun onek berak beste itz-beñi-ixorta biali zigun.

II.—Eguskitza jaunak ere badakarzki Bizkaian eta liburuetan bildu dituenak.

III.—Lakonbe jaunak irakuñi digu Pierres Laffitte apaiz gaztearen lan bat. Euskal-aditza gai dakar.

Euskaltzaindiak apaiz jaun au urgazle izendatu du, orain gutxi il dan Darricarrere jaunaren ordez. Onen il-samina batzaraldian azaldu da.

IV.—Diruzaiak urteko diru-gora-berak adierazi dizkigu ta aurtengoak ere, gutxi gora-bera, berdiñak izango dirala esan digu.

V.—Azkue jaunak Iruñako Apezpiku jaunaren eskutitza irakuñi digu. Euskeraz idatzia da ta Gazteizera datoñelako zorionak agertuz idatzi zitzaionen erantzupena da.

Ta besterik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostia'n, Eusko-lkaskuntzako gela nagusian, 1929'ko Epañla'ren 29'an.

Batzaraldi ontan euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe, Etxegarai ta Intzagarai ta urgazletatik Aita Soloeta-Dima. Otoitzez asi da.

I.—Azkue jaunak *j* edo *i*-ren autua euskaltzain artera dakar. Diyo, *j*-tak, euskal-abotan, iru aboskera

dituela : bai *j*-gaztelarena, bai *i* laziotarena, bai *y* grekotarena. Berari deritza, *j*-ta idatzi litekela; bañan aŕen da aŕen, euskaldun guziaz otoitz egin bear zayela, *i*-ren otsaz befi esateko.

Beste aburu kat dakar Altube-k, esanik, itz-auŕez *j* idatzi bear dala ta euskaldun bakoitzak bere eŕiko aboskeraz esan.

Eguskitza jaunak diyo, Altube-k eta Azkue-k autuan jaŕaitu dezatela, arlo auxe ongi aztertu arte : edo autua oŕela zatitu : 1º itz-auŕetan *j* idatzi bear al da? 2º Nolako abozkeraz oŕelako edo alako eŕitaldean esan diran aitortu bear al da? 3º *J*-idatzi-aŕen, euskaldunai otoitz egin bear al zaye, *i*-ren abozkeraz esateko?

Luze dijoalako, bigarko utzi da erabakiya.

II.—Eguskitza jaunak aditz-auŕetik dabiŕen *era* auŕezkiya dala diyo ta ez artezki *ra*, batzuek esaten dutenez. Urkijo jaunak erantzun diyo ta ez da erabakirik artu.

III.—Lakonbe jaunak, urtearo, asteko egun ta ile-n izen banaroak ekaŕi dizkigu.

IV.—Altube-k esan digu, bera ezin izan litekela *Euskera*-ko Zuzendari, Bilbo'n bizi ezin dalako.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoitzez amaitu da batzaŕaldiya.

Donostia'n, Eusko-lkaskuntzako gela nagusian, 1928'ko Epaiŕa'ren 30'an.

Auŕeko batzaŕaldian aipatzen diran euskaltzañak datoz.

I.—Azkue jaunak ekaŕi digu lan bat : Irun-Ondaŕabi ta Oyartzun-go aditza.